

INFORMAZIO OHARRA, 2023KO URTARRILAREN 1ETIK 2024KO ABENDUAREN 31 BITARTEKO BIZI-ASEGURUEN (HERIOTZA ETA BALIAEZINTASUNA) ETA ISTRIPU-ASEGURUEN GAINEAN

Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiaren apirilaren 19ko 1143/2021 Ebazpenaren bidez esleitu zitzaion "SURNE Mutua de Seguros y Reaseguros a prima fija" aseguru konpainiari Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen **istripu-aseguruaren kontratua** 2021erako eta 2022rako.

Geroago, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiaren abenduaren 14ko 3222/2022 Ebazpenaren bidez **luzatu** zen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen istripu-aseguruaren kontratua 2023rako eta 2024rako.

Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiaren apirilaren 19ko 1144/2021 Ebazpenaren bidez esleitu zitzaion "SURNE Mutua de Seguros y Reaseguros a prima fija" aseguru konpainiari Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen **bizi-aseguruaren kontratua** 2021erako eta 2022rako.

Geroago, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiaren abenduaren 14ko 3223/2022 Ebazpenaren bidez **luzatu** zen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen bizi-aseguruaren kontratua 2023rako eta 2024rako.

1.- BIZI-ASEGURUA (HERIOTZA ETA BALIAEZINTASUNA)

A) Aseguru-kontratuaren iraupena:

Kontratuaren iraunaldia hauxe da: 2023ko urtarrilaren 1eko 00:00etatik 2024ko abenduaren 31ra arte.

B) Asegurudunak:

Asegurudunak dira:

Funtzionarioak eta langile finkoak,
Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko aldi baterako langileak,
Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko behin-behineko langileak,
Justizia Administrazioko karrerako funtzionarioak eta bitarteko langileak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari transferitutako zerbitzuei atxikiak.

Zerbitzu-eginkizunetan dauden langileak, bai beste administrazio publiko batzuetan zerbitzua ematen duten Foru Komunitateko Administrazioko langileak, bai

Administrazio honetan zerbitzu-eginkizunetan dauden beste administrazio publiko batzuetako langileak (geroago ezarritako baldintzetan).

Nafarroako Kontseiluko langileak.

Kontratu honen ondorioetarako, funtzionarioak dira Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 3.2 artikuluan halakotzat hartutakoak; jarduneko zerbitzuan daudenak, aipatutako testu bategineko 23. artikulua arabera; beren kargura semea edo alaba edo familiakoa zaintzeagatik eszedentzia berezian daudenak, aipatutako testu bategineko 27. artikulua arabera; Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan berean prestakuntzan edo hobekuntzan egoteagatik zerbitzu berezietan daudenak, aipatutako testu bategineko 24.2 artikulua arabera; Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak % 50eko partaidetza baino handiagoa duen fundazioetan edo enpresa publikoetan zerbitzuak ematen ari direnak, aipatutako testu bategineko 24.1.l) artikulua arabera.

Behin-behineko langileak dira abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 3.3. artikuluan halakotzat hartutakoak, hau da, aldi baterako izendapen askeko kargu politikoak soilik direnak edo kargu horiei laguntzen dietenak edo aholkatzen ari direnak.

Langile finkoak dira aipatutako administrazioarekin eta haren erakunde autonomoekin mugarik gabeko lan harremana dutenak, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 96. artikulua arabera.

Aldi baterako langileak dira une bakoitzean Administrazioarekin aldi baterako lan- edo administrazio-kontratu bat sinaturik dutenak.

Justizia Administrazioaren zerbitzuko karrerako funtzionarioen artean, maiatzaren 14ko 812/1999 Errege Dekretuaren bitartez Nafarroako Foru Komunitateari transferitutako zerbitzuei atxikitakoak: funtzionario horiek halakotzat harturik daude abenduaren 7ko 1451/2005 Errege Dekretuaren 1.1 artikuluari dagokionez Botere Judizialaren Lege Organikoaren 472.1 artikuluan. Errege Dekretu horren bitartez onetsi zen Justizia Administrazioaren Zerbitzuko Funtzionarioen Sarrerako, Lanpostuen Hornidurako eta Sustapen Profesionaleko Erregelamendua.

Justizia Administrazioaren zerbitzuko bitarteko funtzionarioen artean, maiatzaren 14ko 812/1999 Errege Dekretuaren bitartez Nafarroako Foru Komunitateari transferitutako zerbitzuei atxikitakoak: funtzionario horiek halakotzat harturik daude abenduaren 7ko 1451/2005 Errege Dekretuaren 30 artikuluari dagokionez Botere Judizialaren Lege Organikoaren 472.2 artikuluan. Errege Dekretu horren bitartez onetsi zen Justizia Administrazioaren Zerbitzuko Funtzionarioen Sarrerako, Lanpostuen Hornidurako eta Sustapen Profesionaleko Erregelamendua.

Asegurudun izaera automatikoa da eta ez dago hauen lan egoeraren edo arrisku profesionalaren mende. Beraz, honako hauek izanen dute asegurua:

- Lanean ari direnak.
- Eszedentzia berezian daudenak, beren kargura seme-alabak edo familiakoak zaintzeagatik.
- Praktiketako funtzionarioak.

- Langile finko jarraigabeak; haien kontratuak etenda daudenean ere estaldura izanen dute.
- Zerbitzu eginkizunetan dauden langileak, hots, beste administrazio publiko batzuetan zerbitzua ematen ari diren Nafarroako Foru Komunitatekoak eta alderantziz. Hori hala izanik ere, aseguru honen bermeak eta kapitalak soilik erabiliko dira hemen aseguraturiko diru-kopurua asegurudun horietarako beste administrazio publikoen aseguruetan ezarritako zenbatekoa osatu arte edo administrazio publiko horietan ezarri gabeko bermeak osorik osatu arte.
- Aldi baterako kontratudunak eta bitarteko langileak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarekiko lan-harremana edo zerbitzu-harremana eten ondoren, aldi baterako desgaitasunaren prozesuak berak eragin badu heriotza edo etengabeko ezgaitasuna (prozesu hori hasi zen Administrazio honekin lan- edo zerbitzu-lotura izan zenean). Kasu horretan, heriotza-egunean edo ezintasun iraunkorraren ebazpena eman zen egunean zeudenak izanen dira ezbehar horiei aplikatu beharreko aseguru-entitatea, bermeak eta kapitalak.
- Aseguru hau izateko eskubidea duen beste edozein langile, iraganeko, orainaldiko eta etorkizuneko arauen arabera edo erakunde eskudunak edo epai irmoak hala ezartzen badute.

Asegurudun izaerari dagokionez, betiere ez dira oztopo izanen langile hauek:

- Desgaitasuna dutenak.
- Bajan dauden langileak, aldi baterako ezintasunagatik.
- Administrazioan baja hartu dutenak, aldi baterako ezintasun-aldia agortu delako.
- Ezintasun espedientea tramitatzen ari diren langileak.
- Erretiroa hartzeko ohiko adina betea izanagatik ere, administrazioaren zerbitzuan segitzen duten langileak.
- Kontratua etenda duten langileak, hots, usteko hobekuntza izan dezakeen baliaezintasuna eman diotenak eta ezgaitasuna berrikustearen zain daudenak.

C) Bizi-aseguruaren bermeak eta kapitalak

Kontratututako bermeen definizioak:

⇒ **Heriotza edozer dela-eta (Heriotza istripuagatik edo eritasunagatik)**

- Edozer dela-eta (istripua edo eritasuna) aseguruduna hiltzen bada, konpainiak berme honek aseguraturako kapitala emanen du ordainetan. Kontratu honen ondorioetarako, berariaz aditzera ematen da asegurudun guztiek estalita dutela suizidio arriskua, aseguruan sartzan diren lehen unetik beretik.
- Harremana azkendua duten langileei dagokienez, kontratuak heriotza estaltzen duela usteko da arrazoi horregatik istripua gertatu eta hurrengo 5 urteko epean.

⇒ **Ohiko lanbiderako ezintasun iraunkor osoa, istripu edo eritasun baten ondorioz:**

- Kontratu honen ondorioetarako, istripu edo eritasun baten ondorioz ohiko lanbiderako ezintasun iraunkor osotzat hartuko da: istripu edo eritasun batek sortutako egoera fisiko ustez itzulezina, aseguruduna erabat ezgai uzten duena bere ohiko lanbidean etengabe aritzeko.

- Baldin eta, hobekuntza egon delako, berraztertze modukoa bada istripu edo eritasun baten ondoriozko ohiko lanbiderako ezintasun iraunkor osoa, indarreko legerian ezarritako terminoetan, aurreikusitako prestazioaren ordainketa etenda geldituko da, organo eskudunak ezintasuna berraztertzean erabaki bat hartu bitartean. Hobekuntza gertatu dela eta asegurdunak lanera itzuli beharra badu, ezbeharrak behin betiko itxiko da eta ez da kalte-ordainik ordainduko. Aitzitik, organo eskudunak bere garaian onartutako ezintasuna berresten badu, behar den kalte-ordaina berehala ordainduko da, egoera hori egiaztatu ondoren.
- Aseguruna hiltzen bada ezintasunaren hasierako onarpenaren eta berraztertze horren ondorioak islatzen dituen agiria ematen den egunaren artean, hasieran onartutako ezintasunari dagokion kalte-ordaina ordainduko da.
- Berme hau automatikoki onartu eta indemnitzatuko du aseguratzaileak erakunde eskudunak hala aitortu edo onartzen duenean.
- Harremana azkendua duten langileei dagokienez, istripuagatiko ezintasuna kontratuak estaltzen duela usteko da arrazoi horregatik istripua gertatu eta hurrengo 5 urteko epean.

⇒ **Edozein lanbidetarako ezintasun iraunkor absolutua, istripu edo eritasun baten ondorioz:**

- Kontratu honen ondorioetarako, istripu edo eritasun baten ondorioz edozein lanbidetarako ezintasun iraunkor absolututzat hartuko da: istripu edo eritasun batek sortutako egoera fisiko ustez itzulezina, asegurduna erabat ezgai uzten duena diruz ordaindutako edozein lanbidetan etengabe aritzeko.
- Baldin eta, hobekuntza egon delako, berraztertze modukoa bada istripu edo eritasun baten ondoriozko ezintasun iraunkor absolutuaren egoera, indarreko legeriak ezarritako terminoetan, aurrez ikusitako prestazioaren ordainketa etenda geldituko da, harik eta organo eskudunak ezintasuna berrikusi arte. Hobekuntza gertatu dela eta asegurdunak lanera itzuli beharra badu, ezbeharrak behin betiko itxiko da eta ez da kalte-ordainik ordainduko. Aitzitik, organo eskudunak bere garaian onartutako ezintasuna berresten badu, behar den kalte-ordaina berehala ordainduko da, egoera hori egiaztatu ondoren.
- Ezintasunaren hasierako onarpenaren eta berraztertze horren ondorioak islatzen dituen agiria ematen den egunaren artean asegurduna hiltzen bada, hasieran onartutako ezintasunari dagokion kalte-ordaina ordainduko zaie pertsona asegurdunaren oinordekoei.
- Aseguratzaileak berme hau automatikoki onartu eta indemnitzatuko du erakunde eskudunak hala aitortu edo onartzen duenean.
- Harremana azkendua duten langileei dagokienez, kontratuak istripuagatiko ezintasuna estaliko du, istripuak eragindako ezintasuna gertatu eta hurrengo 5 urteko epean.

Langile bati ezintasun iraunkorra onartuko balitzaio eta ezintasun hori dela-eta kontratu honengatik edo lehenagokoengatik kalte-ordainik jaso balu, eta Administrazio honetako beste lanpostu batean sartuko balitz, bidezkoa izanen da aseguru-kontratuan sartzea gainerako asegurdunak sartu diren baldintza berberetan.

Gizarte Segurantzak edo bestelako erakunde eskudun batek ez bada ezintasun-maila baloratzen, aseguru-etxeak fakultatiboei galdatuko zaie. Aseguru-etxea beharurik egonen da edozein osasun-ondorioren balorazioa egitera. Aseguratzailearen eta asegurdunaren artean adostasunik ez bada, arbitro arituko dira, batetik, behar den probintziako Medikuko Elkargoak izendaturiko mediku independente bat, edo/eta bestetik, bi aldeek adostasuna izanen duen mediku bat; mediku honen kostua bi aldeek erdi bana ordaindu beharko dute.

Aurrekoa aplikagarri izanen zaio erretiroa hartzeko ohiko adina baino zaharragoak direnei, baldin eta Gizarte Segurantzak edo beste erakunde eskudun batek ez baditu ezintasun-maila edo dauden osasun-ondorioak baloratzen.

Akordiorik lortzen ez bada, alde bakoitzak peritu bat izendatuko du, Aseguru-kontratuaren Legeari buruzko 38. eta 39. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Pertsonak desagertzea:

Kode Zibilaren 193. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoari jarraituko zaio haietan ageri diren kasuetan heriotza deklaratzeari dagokionez.

Onuradunek behar den kalte-ordaina jasoko dute, jasotako zenbateko osoa, interesik aplikatu gabe, aseguru-entitateari itzultzeko obligazioa bere eginez, baldin eta aseguruduna bizirik badago.

Kontratutako estaldurak eta kapitalak honako hauek dira:

- **Heriotza**, edozer dela-eta: 31.000 euro.
- **Eskolatze errenta**: 1.888,52 euro asegurudunaren seme edo alaba bakoitzagatik, urtean. Eskolatze-errenta hasten da 4 urte betetzen direnean eta 23 urte bete baino egun bat lehenago bukatzen da.
- **Ezintasun iraunkor absolutua**, edozer dela eta: 31.000 euro.
- **Ezintasun iraunkor osoa** ohiko lanbiderako, edozer dela eta: 25.090,16 euro.

Baliezintasun handia eta ezintasun orokor absolutua parekoak dira, aseguru honen kalte-ordainen ondorioetarako.

Subjektu asegurudunaren seme-alabek eskolatze errenta jasotzeko eskubidea izanen dute, baldin eta aseguruduna bizirik zegoen bitartean sortuak izan baziren, haien jaiotza asegurudunaren heriotzaren ondoren gertatu bada ere.

Baldintza hori beterik, seme edo alaba horiek eskolatze errenta jasotzeko eskubidea izanen dute, jaiotza gertatzen denean aseguru-kontratua iraungirik badago ere.

Eskolatze-errenta hasten da 4 urte betetzen direnean eta 23 urte bete baino egun bat lehenago bukatzen da, hau da, seme edo alaba onuradunak 4 urte dituenetik 22 urtera bitartekoa da, bi urte horiek barne direla.

Ezintasun iraunkorraren bermeak ez dira metatuko.

Estaldura osagarriak:

- 1) Kapital gehigarria **baliaezintasun handirako**, edozein zergati, eritasun edo istripu dela eta, ezintasun absolutu eta iraunkorraren bermearen kapitalaren zenbateko berarekin; kalte-ordaina 62.000 eurora igoko da.
- 2) Heriotza dela-eta indemnitzatu beharreko kapitaleko **10.000 euro aurreratzea**, onuradunek heriotzaren ondoriozko gastuei aurre egiteko, hots, hiletakoei, dokumentazioaren tramitaziokoei, abokatuenei eta abarri. Kalte-ordainen onuradunek onuradun-izaera egiaztatu eta asegurudunaren heriotza-ziurtagiria aurkeztu beharko dute.
- 3) Aseguruduna hiltzen bada 18 urtez beherako **seme-alaba adingabeei arreta**

psikologikoa emateko zerbitzua ematea edo, adin hori baino zaharragoak direnei, baldin eta ezintasunaren legezko egoeran edo egoera judizialean badaude, eta/edo ezkontideari edo asegurdunari aplikagarri zaion araudiaren arabera behar bezala eratu den izatezko bikotekideari, 2.000 euro bitartean eta heriotza gertatu eta urtebete geroagora arte, aldez aurretik medikuaren txostena aurkeztuta eta gastuak justifikatuta.

4) Polizak estalitako ezbehar baten ondorioz asegurdunak ezintasun iraunkor absolutua edo baliaezintasun handia badu, **asegurdunaren etxebizitza egokitzeko gastuak itzuliko dira** gehienez ere 9.000 euro arte. Gastuak ordainduko dira aldez aurretik obra-proiektua egin eta gastuen faktura aurkeztu ondoren.

5) Polizak estalitako ezbehar baten ondorioz asegurdunak ezintasun iraunkor absolutua edo baliaezintasun handia badu, **asegurdunaren ibilgailua egokitzeko gastuak itzuliko dira**, asegurdun bakoitzeko gehienez ere 6.000 euro arte.

6) Polizak estalitako ezbehar baten ondorioz asegurdunak ezintasun iraunkor absolutua edo baliaezintasun handia badu, **gurpil-aulkia erosteko gastuak itzuliko dira**, baita aulki hori ahalik eta hobekien egokitzeko behar diren osagarri mekanikoak, elektrikoak eta mugimenduzkoak erostekoak ere, asegurdun bakoitzeko gehienez ere 6.000 euro arte. Ordainduko da aldez aurretik egindako gastuaren faktura aurkeztu ondoren.

7) Polizak babestutako ezintasun iraunkor absolutuaren edo baliaezintasun handiaren egoeran dagoenari **protesiaren gastuak itzuliko** zaizkio, gehienez ere 2.000 euro arte.

8) **Errekuperazio estetikoa egiteko kalte-ordain gehigarria**, polizak estalitako istripu edo eritasun batek prestazio hori justifikatzen badu, asegurdun bakoitzeko gehienez ere 1.200 euro arte.

9) **Etxez etxeko laguntza zerbitzuko gastuen zenbatekoa** itzultzea, istripuagatik edo laneko agintari edo agintari judizial eskudunek onartutako lanbide eritasunagatik baliaezintasun handia dagoenean, behar hori mediku batek agindutakoa bada, asegurdun bakoitzeko 6.000 euro gehienez ere.

10) Polizak estalitako ezbehar batek sortutako **lesio traumatikoak, entzumenekoak, ikusmenekoak, ortopediakoak, fonaziokoak eta abarrekoak errehabilitatzearen ondoriozko gastuen estaldura**, asegurdun bakoitzeko 1.500 euro gehienez ere.

11) **Aberriratzeko gastuen estaldura**, zeinagatik izendatutako onuradunei 3.000 euro emanen baitzaizkie, onuradun horiek aseguru-polizak estalitako istripuagatik hil den asegurduna aberriratzeko gastuei aurre egin diezaieten, heriotza Espainiako lurraldetik kanpo gertatu denean. Asegurduna Suitzan hil bada, hura aberriratzeko 5.000 euro emanen dira 3.000 eman beharrean.

12) **Nortasun digitala ezabatzeko zerbitzua** heriotzagatik (ahaztua izateko eskubidea). Zerbitzu horren barne dira:

- Hildakoak erabiltzen zituen sare sozialetan baja emateko eskaera edo oroitzen-kontura aldatzeko eskaera.
- Posta elektronikoa baja ematea tramitatzea.

- Hildakoaren blogei edo webguneei, foroetan, txatetan eta abarretan dituen profilei baja ematea edo lekualdatzea tramitatzea.
- Interneteko zerbitzarietan (hodeian) biltegiatutako fitxategien ezabatzea edo lekualdatzea tramitatzea.

13) **Aholkularitza juridikorako eta gestoriarako zerbitzua** ematea onuradunei, honako hauetan:

- Aholkularitza ematea heriotza gertatzen denean hileta-zerbitzuekin, gorpua ekartzearekin eta aberriratzearekin, Erregistro Zibilar komunikatzearekin, eta hildakoa lurperatzearekin edo erraustearekin lotutako tramite guztiak egiteko.

- Aholkua eman eta kudeaketak egitea oinordekotza ez-auzipekoetan eta telefono bidezko aholkularitza juridikoa ematea honako hauetarako: oinordekotza-gaiak, ziurtagiriak (heriotza, jaiotza, ezkontza, bizi-agiria, azken borondateak), Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalarekiko tramiteak (baja, heriotzagatiko laguntza, ezkontidearen altak eta beste onuradun batzuk), heriotza Familia Liburuan anotatzea, alarguntasun eta umezurztasun pentsioak tramitatzea, ezinduak edo adingabeak daudenean defendatzaile judiziala izendatzeko eskaera, Aseguru Kontratuen Erregistroan kontsulta egitea, oinordekotza ez-auzipekoaren tramitazioan aholkua ematea (testamentuaren kopia, ab intestato oinordekoak aitortzea, testamentua irekitzea), gainbalioaren gaineko zerga likidatzeko aholkularitza eta gestoria-lana, oinordetzaren gaineko zergaren likidazioa, erregistroko inskripzioen kudeaketa, testamentua emateari buruzko aholkularitza juridikoa, notarioaren aurreko sinadura diseinatzea, idatzea, prestatzea eta, kasua bada, egintzan parte hartzea.

Zerbitzuaren barnean kostu hauek daude sartuta: abokatuen, kudeatzaile administratiboen ordainsariak, ziurtagiriak lortzeko tasak, joan-etorrietarako eta mezularitzako gastuak.

D) Ezbeharren ondorio-eguna:

Ezbeharra atenditu behar duen aseguratzailera eta aplikagarri zaion aseguruaren kontratua zehaztearen ondorioetarako, honako hau ezartzen da:

- Heriotzaren estalduran, heriotzaren eguna.
- Ezintasun iraunkor osoaren, ezintasun iraunkor absolutuaren eta baliaezintasun handiaren estalduretan, erakunde eskudunak luzatutako ebazpena zein egunetan eman zen. Lanpostua gorderik, ustezko hobekuntzagatiko berrazterketa ezartzen den kasuetan, ezbeharraren eguna lehen ebazpenekoa izanen da –ebazpen horren ondorioa aldi baterako gelditu zen etenik–.

E) Kontratuaren salbuespenak:

Berariaz aditzera ematen da ez dagoela salbuespenik kontratu honen bermeetako ezeinen estalduran.

F) Estalduraren esparru geografiko eta tenporala:

Estalduraren esparru geografikoa mundu osokoa da, inolako salbuespenik egin gabe.

Esparru tenporalari dagokionez, asegurudunak babesturik daude eguneko 24 ordutan, bai haien bizitza arrunt eta partikularrean, bai haien lanean ari diren bitartean.

2.- ISTRIPU-ASEGURUA

a) Aseguru-kontratuaren iraupena: (bizi-aseguruaren berbera)

Kontratuaren iraunaldia hauxe da: 2023ko urtarrilaren 1eko 00:00etatik 2024ko abenduaren 31ko 24:00ak arte.

B) Asegurudunak: (bizi-aseguruaren berbera)

Asegurudunak dira:

- Funtzionarioak eta langile finkoak,
- Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko aldi baterako langileak,
- Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko behin-behineko langileak,
- Justizia Administrazioari karrerako funtzionarioak eta bitarteko langilea, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari transferitutako zerbitzuei atxikiak.
- Zerbitzu eginkizunetan dauden langileak ere sartzen dira, bai beste administrazio publiko batzuetan zerbitzua ematen duten Foru Komunitateko Administrazioak, bai Administrazio honetan zerbitzu eginkizunetan dauden beste administrazio publiko batzuetakoak, atal honetan berean geroago ezarritako terminoetan.
- Nafarroako Kontseiluko langileak.

Kontratu honen ondorioetarako, funtzionarioak dira Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 3.2 artikuluan halakotzat hartutakoak; jarduneko zerbitzuan daudenak, aipatutako testu bategineko 23. artikulua araberak; beren kargura semea edo alaba edo familiakoa zaintzeagatik eszedentzia berezian daudenak, aipatutako testu bategineko 27. artikulua araberak; Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan berean prestakuntzan edo hobekuntzan egoteagatik zerbitzu berezietan daudenak, aipatutako testu bategineko 24.2 artikulua araberak; Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak % 50eko partaidetza baino handiagoa duen fundazioetan edo enpresa publikoetan zerbitzuak ematen ari direnak, aipatutako testu bategineko 24.1.I) artikulua araberak.

Behin-behineko langileak dira abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 3.3. artikuluan halakotzat hartutakoak, hau da, aldi baterako izendapen askeko kargu politikoak soilik direnak edo kargu horiei laguntzen dietenak edo aholkatzen ari direnak.

Langile finkoak dira aipatutako administrazioarekin eta haren erakunde autonomoekin mugarik gabeko lan harremana dutenak, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 96. artikulua araberak.

Aldi baterako langileak dira une bakoitzean Administrazioarekin aldi baterako lan- edo administrazio-kontratu bat sinaturik dutenak.

Justizia Administrazioaren zerbitzuko karrerako funtzionarioen artean, maiatzaren 14ko 812/1999 Errege Dekretuaren bitartez Nafarroako Foru Komunitateari transferitutako zerbitzuei atxikitakoak: funtzionario horiek halakotzat harturik daude abenduaren 7ko 1451/2005 Errege Dekretuaren 1.1 artikuluari dagokionez Botere Judizialaren Lege Organikoaren 472.1 artikuluan. Errege Dekretu horren bitartez

onetsi zen Justizia Administrazioaren Zerbitzuko Funtzionarioen Sarrerako, Lanpostuen Hornidurako eta Sustapen Profesionaleko Erregelamendua.

Justizia Administrazioaren zerbitzuko bitarteko funtzionarioen artean, maiatzaren 14ko 812/1999 Errege Dekretuaren bitartez Nafarroako Foru Komunitateari transferitutako zerbitzuei atxikitakoak: funtzionario horiek halakotzat harturik daude abenduaren 7ko 1451/2005 Errege Dekretuaren 30 artikuluari dagokionez Botere Judizialaren Lege Organikoaren 472.2 artikuluan. Errege Dekretu horren bitartez onetsi zen Justizia Administrazioaren Zerbitzuko Funtzionarioen Sarrerako, Lanpostuen Hornidurako eta Sustapen Profesionaleko Erregelamendua.

Asegurudun izaera automatikoa da eta ez dago hauen lan egoeraren edo arrisku profesionalaren mende. Beraz, honako hauek izanen dute asegurua:

- Lanean ari direnak.
- Eszedentzia berezian daudenak, beren kargura seme-alabak edo familiakoak zaintzeagatik.
- Praktiketako funtzionarioak.
- Langile finko jarraigabeak; haien kontratuak etenda daudenean ere estaldura izanen dute.
- Zerbitzu eginkizunetan dauden langileak, hots, beste administrazio publiko batzuetan zerbitzua ematen ari diren Nafarroako Foru Komunitatekoak eta alderantziz. Hori hala izanik ere, aseguru honen bermeak eta kapitalak soilik erabiliko dira hemen aseguraturiko diru-kopurua asegurudun horietarako beste administrazio publikoen aseguruetan ezarritako zenbatekoa osatu arte edo administrazio publiko horietan ezarri gabeko bermeak osorik osatu arte.
- Aldi baterako kontratudunak eta bitarteko langileak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarekiko lan-harremana edo zerbitzu-harremana eten ondoren, aldi baterako desgaitasunaren prozesuak berak eragin badu heriotza edo etengabeko ezgaitasuna (prozesu hori hasi zen Administrazio honekin lan- edo zerbitzu-lotura izan zenean). Kasu honetan, heriotza-egunean edo ezintasun iraunkorraren ebazpena eman zen egunean zeudenak izanen dira ezbehar horiei aplikatu beharreko aseguru-konpainia, bermeak eta kapitalak.
- Aseguru hau izateko eskubidea duen beste edozein langile, iraganeko, orainaldiko eta etorkizuneko arauen arabera edo erakunde eskudunak edo epai irmoak hala ezartzen badute.

Asegurudun izaerari dagokionez, betiere ez dira oztopo izanen langile hauek:

- Desgaitasuna dutenak.
- Bajan dauden langileak, aldi baterako ezintasunagatik.
- Administrazioan baja hartu dutenak, aldi baterako ezintasun-aldia agortu delako.
- Ezintasun espedientea tramitatzen ari diren langileak.
- Erretiroa hartzeko ohiko adina betea izanagatik ere, administrazioaren zerbitzuan segitzen duten langileak.
- Kontratua etenda duten langileak, hots, usteko hobekuntza izan dezakeen baliaezintasuna eman diotenak eta ezgaitasuna berrikustearen zain daudenak.

C) Istripu-aseguruaren bermeak eta kapitalak

Kontratutako bermeen definizioak:

Istripua esaten zaio asegurdunari gertatutako gorputz lesioari, eragin duen kausa denean bat-batekoa eta bortitza, kanpoko, eta zerikusirik gabea asegurdunaren intenzionalitatearekin.

Nolanahi ere, istripuzat hartuko dira eta kontratu honek estalita egonen dira erakunde eskudunek eta epai judizialek istripuaren kalifikazioa eman dietenak.

⇒ Kasu guztietan, istripuzat hartuko dira eta, ondorioz, honako hauen ondorioek kalte-ordaina izanen dute:

- Istripu gisa katalogatutako guztiak, baita infartua eta istripu zerebrobaskularra eta beste edozein patologia, baldin eta erakunde ofizial eta jurisdikzional eskudunek emandako ebazpen edo epai irmoetan halakotzat katalogatu badituzte.
Ondorioz, Gizarte Segurantzaren erregulazioak eta/edo erakunde ofizial edo jurisdikzional eskudunek emandako ebazpen edo epai irmoek zehaztuko dute gertaera istripu bezala kalifikatu behar den, heriotza edo ezintasun iraunkorraren graduazioa zein den.
- Kontratu honen asegurdunari edozein motatako motozikleta eta ziklomotor edo bestelako edozein lokomozio-bide erabiltzeagatik gertatzen ahal zaizkien istripuak.
- Aseguru-kontratu honen asegurdunari edozein hegazkin eta helikopterotan bidaiari modura joateagatik gertatzen ahal zaizkien istripuak.
- Itotzea gas edo lurrinak arnasteagatik, uretan sartzeagatik edo murgiltzeagatik, tenperaturaren edo presio atmosferikoaren ondoriengatik edo materia likido edo solidoak irensteagatik, elikagaienak izan edo ez, asegurdunak kontzienteki egindako ekintzak ez badira.
- Kontratu honek estalitako istripu baten ondoriozko infekzioak.
- Intsektuen eta animalien ziztadak edo hozkak eta haien ondorioak.
- Kontratu honek estalitako istripu baten ondoriozko ebakuntza kirurgikoetatik edo mediku tratamenduetatik eratorritako infekzioak.
- Herniak, ahalegin edo distentsio muskularrak, irradiazio ziatikoa duten lunbalgiak edo ez dutenak edo antzekoak, kontratu honek estalitako istripu baten ondorioz gertatu badira.
- Norberaren edo hirugarrenen defentsa legitimorako eskubideak berekin dakartzen ekintzen ondorioz, zein lo-ibiltzearen, apoplejiaren, epilepsiaren edo edozein motatako konorte-galtzearen ondorioz, sortutako lesio mota oro.
- Eguzki-kolpeak, kongestioak, izozteak, tenperaturaren edo presioaren eraginak.
- Erradiazioen ondorioz, haien jatorria zerbitzua ematean gertatu bada.
- Tximista erortzeagatik edo beste edozein deskarga elektrikogatik.

⇒ Beti lanbide eritasuntzat hartuko da eta, beraz, honako hauen ondorioak indemnitzatuko dira:

Aseguru-hartzailearen kontura asegurdunak egiten duen lanaren ondorioz hartutako eritasuna, halakotzat aitortua badute Gizarte Segurantzak edo laneko agintari eskudunak edo organo jurisdikzional eskudunek.

Eritasuna onartzeko eta, ondorioz, hari dagokion kalte-ordaina, Gizarte Segurantzaren araudian xedatutakoari jarraituko zaio. Hartara, beharrezkoa izanen da organismo eskudunek eritasun hori aitortu eta kalifikatzea aseguru-hartzailearen kontura egindako lanaren ondorioz hartutako lanbide eritasun gisa.

⇒ **Heriotza, istripuagatik:**

Istripuagatiko heriotza: kontratu honek estalitako istripu baten ondorioz aseguru hiltzea. Harremana azkendua duten langileei dagokienez, istripuagatiko heriotza kontratuak estaltzen duela usteko da haren arrazoigatiko istripua gertatu eta hurrengo 5 urteko epean.

Kontratuak estalitako istripu baten ondorioz aipatutako bost urteko epe horren ondoren hil bada asegurduna, kalte-ordaina jaso ahal izateko, behar bezala egiaztatu beharko da heriotza istripu horren ondorioz gertatu dela.

⇒ Edozein lanbidetarako ezintasun iraunkor absolutua, istripu baten ondorioz:

Istripu baten ondorioz edozein lanbidetarako ezintasun iraunkor absolututzat hartuko da kontratuak estalitako istripu batek sortutako egoera fisiko ustez itzulezina, asegurduna erabat ezgai uzten duena diruz ordaindutako edozein lanbidetan etengabe aritzeko.

Istripu baten ondoriozko ezintasun iraunkorraren egoera hobekuntzagatik berrazter badaiteke, indarreko legeriak ezarritako terminoetan, aurrez ikusitako prestazioaren ordainketa etenda geldituko da harik eta organo eskudunak ezintasuna berraztertu arte. Hobekuntza gertatu dela eta asegurdunak lanera itzuli beharra badu, ezbeharrak behin betiko itxiko da eta ez da kalte-ordainik ordainduko. Aitzitik, organo eskudunak bere garaian onartutako ezintasuna berresten badu, behar den kalte-ordaina berehala ordainduko da, egoera hori egiaztatu ondoren.

Ezintasunaren hasierako onarpenaren eta berraztertze horren ondorioak islatzen dituen agiria ematen den egunaren artean asegurduna hiltzen bada, hasieran onartutako ezintasunari dagokion kalte-ordaina ordainduko zaie pertsona asegurdunaren oinordekoei.

Berme hau automatikoki onartu eta indemnitatu du aseguratzaileak erakunde eskudunak hala aitortu edo onartzen duenean.

Harremana azkendua duten langileei dagokienez, istripuagatiko ezintasuna aseguru-kontratuak estaltzen duela usteko da haren arrazoigatiko istripua gertatu eta hurrengo 5 urteko epean.

Langile bati ezintasun iraunkorra onartuko balitzaio eta ezintasun hori dela-eta kontratu honengatik edo lehenagokoenatik kalte-ordainik jaso balu, eta Administrazio honetako beste lanpostu batean sartuko balitz, bidezkoa izanen da aseguru-kontratuan sartzea gainerako asegurdunak sartu diren baldintza berberetan.

Gizarte Segurantzak edo bestelako erakunde eskudun batek ez badu ezintasun-maila baloratzen, aseguru-etxeko fakultatiboek galdutako zaie. Aseguru-etxea beharturik egonen da edozein osasun-ondorioaren balorazioa egitera. Aseguratzailearen eta asegurdunaren artean adostasunik ez bada, arbitro arituko dira, batetik, behar den

probintziako Mediku Elkargoak izendaturiko mediku independente bat, edo/eta bestetik, bi aldeen adostasuna izanen duen mediku bat; mediku honen kostua bi aldeek erdi bana ordaindu beharko dute.

Aurrekoa aplikagarri izanen zaio erretiroa hartzeko ohiko adina baino zaharragoak direnei, baldin eta Gizarte Segurantzak edo beste erakunde eskudun batek ez baditu ezintasun-maila edo dauden osasun-ondorioak baloratzen.

Akordiorik lortzen ez bada, alde bakoitzak peritu bat izendatuko du, Aseguru-kontratuaren Legeari buruzko 38. eta 39. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Pertsonak desagertzea: (bizi-aseguruaren berbera)

Kode Zibilaren 193. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoari jarraituko zaio haietan ageri diren kasuetan heriotza deklaratzeari dagokionez.

Onuradunek behar den kalte-ordaina jasoko dute, jasotako zenbateko osoa, interesik aplikatu gabe, aseguru-entitateari itzultzeko obligazioa bere eginez, baldin eta aseguruduna bizirik badago.

Istripu-aseguruaren estaldura-kapitalak:

- Heriotza istripuagatik edo lanbide eritasunagatik: 121.000 euro.
- Ezintasun iraunkor absolutua, istripuagatik edo lanbide eritasunagatik: 121.000 euro.

Estaldura osagarriak eta bestelako hobekuntzak:

- 1) Kapital gehigarria baliaezintasun handirako, istripua dela eta, ezintasun absolutu eta iraunkorraren bermearen kapitalaren % 50eko zenbatekoarekin; kalte-ordaina 181.500 eurora igoko da.
- 2) Kapital bikoitzaren bermea, bi ezkontideak istripuz edo zirkulazio-istripuz hiltzen direnean, asegurudunak 18 urtez beherako seme-alabak edo 18 urtez gorako seme-alaba ezinduak dituenean. Egoera hori guraso bakarreko familietan gertatzen den umezurztasun absolutuaren egoerarekin parekatuko da. Hildako biak kontratu honen asegurudunak badira, kapitala bikoiztu litzateke bi kasuetan.

D) Ezbeharren ondorio-eguna: (bizi-aseguruaren berbera)

Ezbeharra atenditu behar duen aseguratzailerak eta aplikagarri zaion aseguruaren kontratua zehaztearen ondorioetarako, honako hau ezartzen da:

- ⇒ Heriotzaren estalduran, heriotzaren eguna.
- ⇒ Ezintasun iraunkor absolutuaren eta baliaezintasun handiaren estalduretan, erakunde eskudunak luzatutako ebazpenaren eguna. Lanpostua gorderik, ustezko hobekuntzagatik berrikuspena ezartzen den kasuetan, ezbeharraren eguna lehen ebazpenekoa izanen da –ebazpen horren ondorioa aldi baterako gelditu zen etenik–.

E) Kontratuaren salbuespenak:

Berariaz aditzera ematen da ez dagoela salbuespenik kontratu honen bermeetako ezein estalduratan, kontratu honek indarra hartu aurretik gertatu ziren eritasun edo istripuen ondorioz.

Salbuetsitako arriskuak:

A) Organismo ofizial edo jurisdikzional eskudunek beren ebazpen eta epai irmoetan gertaera eragilea laneko istripu edo lanbide eritasun moduan katalogatzen badute, ez da estalduratik ezer ere salbuesten.

B) Gertaera eragilea ez badago katalogatuta laneko istripu edo lanbide eritasun moduan, kontratuaren berme guztietarako, aseguru-kontratu honen salbuespenak honako hauek dira:

- Asegurudunak nahita sorturiko ezbeharrak, suizidioa edo norberak bere buruari eragindako edozein lesio.

F) Estalduraren esparru geografiko eta tenporala: (bizi-aseguruaren berbera)

Estalduraren esparru geografikoa mundu osokoa da, inolako salbuespenik egin gabe.

Esparru tenporalari dagokionez, asegurudunak babesturik daude eguneko 24 ordutan, bai haien bizitza arrunt eta partikularrean, bai haiek lanean ari diren bitartean.

3.- ONURADUNAK IZENDATU ETA ALDATZEA

Asegurudunek "Bizi- eta istripu-aseguruen polizetarako datuak" izeneko inprimakia bete dezakete, heriotza gertatuz gero onuradunak berariaz izendatzeko.

Administrazio Erroari eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako asegurdunak onuradunak izendatzeko inprimakia jaits dezakete intranetetik, Nafarroako Gobernuko langileen ataritik (Zerbitzuak > Aseguruak).

Era berean, Hezkuntzari atxikitako asegurdunak jaits dezakete www.educacion.navarra.es webgunetik (Informazioa > Laneko informazioa > Ordainsariak).

Inprimakia, ahal dela, telematikoki igorriko da Erregistro Orokor Elektronikoaren bidez edo Nafarroako Gobernuko erregistro-bulegoetan aurkeztuko da.

Onuradunen izendapena noiznahi alda dezakete asegurdunak. Horretarako, beste inprimaki bat bete eta aurkeztu beharko da Erregistro Orokor Elektronikoan. Data eta asegurdunaren sinadura jarri behar dira nahitaez.

Asegurduna hiltzen bada, berak egindako onuradunen izendapen berariazkoan ezarritakoa beteko da.

- **Ez badira onuradunak berariaz izendatzen**, honako hauek izendatuko dira, lehentasun baztertzaille hauei jarraikiz:
 1. Testamentu bidezko oinordekoak.
 2. Ezkontidea, ez badago asegurdunarengandik legez bereizia, edo izatezko bikotekidea, bikotea behar bezala eratu bada, asegurdunari aplikatzekoa zaion araudiarekin bat, eta frogatzen bada asegurdunarekin duen harremanak irauten duela hura hil den unean.
 3. Hura gabe, seme-alabak, zati berdinetan.
 4. Horiek gabe, gurasoak, zati berdinetan.
 5. Horiek guztiak gabe, haien legezko oinordekoak, zati berdinetan.

4.- TRAMITAZIOA

Gorago aipatutako prestazioetako baten hartzekodun izateko egoeran zaudela uste baduzu, joan zaitez zu zeu edo hurbileko norbait igorri Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuko Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiko Gizarte Prestazioen Zerbitzura (Navarrerria kalea 39, 1.solairua – 31001 Iruña) edo deitu 848 427085 / 848 427091 telefono hauetako baten batera edo idatzi serpresoc@navarra.es helbide elektronikora.

INFORMAZIO OROKORRA

Aseguru Pribatuen Ordenamenduari eta Gainbegiratzeari buruzko Erregelamenduaren (2486/98 ED, 1318/2008 EDk aldatua) 104. artikuluetan eta hurrengoetan xedatutakoari jarraituz:

Polizen kalifikazioa

Gorago aipatutako bizi-asegurua (heriotza eta baliaezintasuna) eta istripu-asegurua, biak, pentsioak emateko konpromisoa berekin duten enpresako aseguru kolektiboak dira.

Funtzio Publikoaren aseguruaren aholkularitza eta bitartekaritza zerbitzuaren esleipena jaso duen **aseguru artekaritzaren izena eta helbidea:**

- Correduría de Seguros AON Gil y Carvajal, S.A. Helbidea: Leire kalea 11 bis, 1. C - 31002 Iruña.

Aseguru-entitateen izena eta helbide soziala:

Surne Mutua de Seguros y Reaseguros a Prima Fija.

Egoitza soziala: Gardoki kardenalaren kalea 1 - 48008 Bilbo.

Aseguruaren eta Pentsio-funtsen Zuzendaritza Nagusiko Entitate Aseguratzaileren Erregistroan M-0378 zenbakiarekin inskribatua.

Pentsion Entitate Kudeatzaileen Erregistroan G-211 zenbakiarekin inskribatua.

IFK: V48083521

Aseguru-entitateak kontrolatzeko organo administratiboa:

Ekonomiaren, Industriaren eta Lehiakortasunaren Ministerioaren mende dagoen Aseguruaren eta Pentsio-funtsen Zuzendaritza Nagusiak kontrolatuko ditu aseguru-entitateak.

Non egin erreklamazioa, sortzen ahal diren auzietan:

Aseguruaren hartzaileak, asegurudunek edo onuradunek erreklamazioak egin ditzakete aseguru-entitate esleipendunaren bezeroari arreta egiteko zerbitzuan.

Zerbitzu horrek indarreko araudiaren arabera atendituko eta ebatziko ditu pertsona fisiko edo juridiko guztiek, aseguruaren erabiltzaileek eta partaideek zuzenean edo ordezkaritza egiaztatuaren bitartez jarritako kexak eta erreklamazioak, aurkeztu eta bi hilabeteko epean gehienez, kexa eta erreklamazio horiek haien aseguru eragiketekin zerikusia duten interes eta legez aitorturiko eskubideei badagozkie. Interes eta eskubide horiek kontratuen, bezeroen gardentasun eta babesaren araudiaren edo praktika eta erabilera onen araudiaren eta, bereziki, ekitate printzipioaren ondoriozkoak badira.

Kexak eta erreklamazioak idatziz aurkeztuko dira aseguru-entitatearen edozein bulegotan, postaz edo baliabide informatiko, elektroniko edo telematikoak erabiliz, betiere baliabide horien bitartez kexa eta erreklamazio horiek irakurri, inprimatu eta kontserbatu badaitezke eta araudian ezarritako legezko betebeharrak eta ezaugarriak betetzen badituzte.

Ebazpena jaso eta bezeroarentzako arreta zerbitzuaren aurrean erreklamazioaren bidea bukatu eta agortu ondoren erabakiaren emaitzarekin ados ez bada, edo kexa edo erreklamazioa aurkeztu eta bi hilabeteko epean zerbitzu horrek ebatzi ez badu, erreklamazioak erreklamazioa aurkez dezake Asegurudunaren eta Pentsio Planen Partaidearen Defentsarako Batzordearen aurrean (Paseo de la Castellana 44 , 28046 Madril, faxa 91 339 71 13).

Era berean, administrazio-bidean eta epaitegi eta auzitegi eskudunetan ebazten ahalko dira aseguru-hartzaileak, asegurudunak edo onuradunek aseguru-entitatearekin dituzten gatazkak.

Aseguruaren kontratuari aplikatzen zaion legeria:

- 50/1980 Legea, aseguru kontratuari buruzkoa.
- 26/2006 Legea, aseguru eta berraseguru pribatuen bitartekaritzari buruzkoa.
- 30/1995 Legea, aseguru pribatuen antolaketari eta gainbegiraketari buruzkoa.
- 10/2014 Legea, kreditu-erakundeen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenari buruzkoa.
- Merkataritza kodea.
- Polizaren indarraldian aplikatzekoa den beste edozein arau.